

# c. 1900

## Manuel Garavilla



M. Garavilla Quintana

M. Garavilla Zabala

Liburua irakurri ahala konturatuko zarete beti ezin izan ditugula zalantza guztiak argitu, esate baterako Manuel Garavilla argazkilariaren autoretzarena. Aitak eta semeak izen-abizen berak zituztenez M. G. inzialek ez digute argitzen autoretza. Manuel Garavilla Quintana deitzen zen aita, Manuel Garavilla Zabala semea eta argazkiak eta postalak XX. mende hasierakoak direnez biek izan zuten hemen erakusten dizkizuegun argazkiak egiteko aukera, eta baliteke biak autore izatea ere.

Ez ziren ez bata ez bestea argazkilari profesionalak, kontserbagileak ziren, baina argazki bikainak atera zituzten (plurala erabiliko dugu badaezpadan), postal bihurtzeko bezain onak! Dagoeneko irakurri duzue *Thomas* eta *Lacoste* etxeek euron argazkiak erabili zituztela, horregatik postal sorta ederra heldu zaigu. Argazkiekin ez dugu zorte hori izan, baina heldu zaizkigun kristalak, eskerrak hemendik Isaias Gezuragari eta Kiñukakoei, ikusgarriak dira.

Manuel, aita, 1852an jaio zen Lekeitio eta 1876an ezkondu zen Carmen Zabala Longarekin Lekeitio eta haren semeetariko bat Manuel izan zen. Kontserba munduan egin zuen lan, hasieran aitarekin batera, gero bakarrik eta azken urteetan semeekin batera. 1914an hil zen.

Manuel, semea, Haron jaio zen 1884 aldean, eta etxeko negozioan parte hartu zuen. Politikaria ere izan zen, alkate 1914-15 artean eta alkateorde Primo de Riveraren garaian. 1965ean hil zen.



M. Garavilla Zabala. Carlos Solanoren akuarela











## 1900eko ANTZAR EGUNA

Garavillaren argazkia datatzeko *ixerdi plotan* ibili gara. Bagenekien 1902koa edo aurrekoa zena, kabana zaharra (gaur egungo Keleria) oraindik erre eta berregin barik zegoelako. Beste muturrean, goizen 1895 ingurukoa, portu eta plaza berria amaituta ikusten baitira. Kristalezko negatibo ederra erabiliz, argazkia zeharo handitu ahal izan genuen eta ontzien artean Patriarca San Jose izenari erreparatu genion.


Josu Erkiagaren "Baxurako arrantza Lekeition" liburua kontsultatuz jakin genuen Mendietatarrek 1900ean izen horretako trainerua eraiki zutela. Pozik geunden gu, 1900-1902 artekoa izango zelakoan baina arazotxo bat zegoen, traineuren neurriek (11,68 luze, 2 zabal, 0,78 altuera, 4,53 tona) argazkian agertzen zen ontziarenarekin ez zutela bat egiten, itxuraz behintzat. Gainera nonbaiten irakurrita geneukan zorioneko argazkia 1896koa zela. Berrito hasi behar! Handitu eta handitu irudia, urrunean hainbat mutiko agertzen dira uretan eta nahiz eta postalak **LEQUEITIO. Cucañas por San Antolín** ipintzen duen, ikusten den kirol bakarra mutiko horiena da, baina zertan dabilzan deabrutxo horiek?

Udal aktak, kontuak, jai-egitarauak eta egunkariak erreparatu behar izan genituen eta udal aktetan ezer ere ez, udal kontuetan oilarrak, antzarrak eta ahateak agertzen ziren, jai-egitarauan -pozik, 1900. urtekoa badagoelako- antzarrak, mastapunta... betiko legez. Egunkari edo aldizkariak gelditzen zitzaizkigun, lan nekeza eta askotan alferrikakoa. Almorri -Antonio Moral- eskerrek, badakigu *demoniñuak* zertan zebiltzan. 1900-9-10eko *El Noticiero Bilbaino*k publikatu zuen jaietako kronikak azaltzen zuen momentu hura: "A la tarde, después de entretenernos viendo los sacos, las sartenes y la sopa boba, nos encaminamos al puerto, deseosos de gozar del espectáculo de las regatas en toneles; pero nuestro desencanto fué grande, al ver incumplido este número del programa: la regata de toneles se convirtió en la "pesca" á nado de unos patitos, á consecuencia de cuya variante (sic), unos treinta ó cuarenta muchachos, que parecían precitos del Dante, lucieron desvergonzadamente sus desnudeces ante un selecto público que se mostró prudente aunque miró con indiferencia el poco moralizador concurso. Después, la consabida regata de gansos en traineras, hizo como siempre, las delicias de los concurrentes, así como la cucaña horizontal, cuya bandera no pudo ser cogida por ninguno de los paladines y que se le concedió injustamente á quien no era merecedor de ella, como ocurrió con algún ganso y con otros premios".

Badaezpada begiratu dugu ea urte horietan egin zen paitten arrantza modalitate hori eta ez dugu ezer aurkitu. 1900eko irailaren 4an, arratsaldeko laurak eta hogeai aldean atera zen argazkia, behintzat Kofradiako erlojua ondo bazebilen.



Lequeitio. Cucañas por San Antolín  
Fotógrafo M. G.




16:20



Paittak atezuan

1900eko Udal kontuak. LUA





LEQUEITIO. Vista parcial.

Fotógrafo M. G.

M. G. Yancey



LEQUEITIO. Semáforo.

Fotógrafo M. G.



LEQUEITIO. Ruinas.

Fotógrafo M. G.



LEQUEITIO. Hospital y Hospicio.

Fotógrafo M. G.



LEQUEITIO. Puente de Vantzú.

Fotógrafo M. G.



LEQUEITIO. Vista parcial.

Fotógrafo M. G.





LEQUEITIO. Vista general.

Fotografía M. G.



LEQUEITIO. Basílica.

Fotografía M. G.



LEQUEITIO. Relato de la Basílica.

Fotografía M. G.




LEQUEITIO. Puente de Szentza.

Fotografía M. G.



LEQUEITIO. Romeroset.

Fotografía M. G.



LEQUEITIO. Faro de Santa Catalina

Fotografía M. G.

Postalak: Isaias Gezuraga, Koldo Leniz eta Aitor Iturberen bildumetakoa



Lekeitioko bista orokorra, c.1900. Argazkilaria, M. G. Garavilla  
Lekeitio bistara. M.G. artxiboa








LEQUEITIO. Prozesión, Nra Sra. de la Antigua.

© fotógrafo M. G.





XX. mende hasierako argazkiak dira baina zehatzagoak izan nahi genuke. Eliza aurreko argazkietan Bruno Larrazabal agertzen da alkate eta kontzejalen artean Juan Zabala ezagutu dugu, horregatik argazkia 1906-9 artekoa da, iraileko prozesio bat bada 1906-8 artekoa. Dendari kaleko prozesioko argazkiei dagokionez ez dakigu prozesio bera den ala beste bat; edozein kasutan sasoi hartakoak izango dira.



Bilduma pribatuak